

2015-03-24an EGINDAKO OHIKO OSOKO
BILKURA.

SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE
LA CORPORACIÓN. Día 24-03-2015 .

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Beinat Herce Leceta

Zinegotziak

María Arantzazu Iregui Villar
Jose María Herce Isasmendi
Igor Ezpeleta Oregui
Jose Angel Petralanda Gil
Rosario Arcarazo Arcarazo

Idazkaria. Edurne Iturbe Lascurain

Eskoriatzan, bi mila hamabosteko martxoaren hogeita lauan, arratsaldeko seiak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Beinat Herce Leceta alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, ohiko bilkuran, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez dira etorri Merino eta Cantero jaunak eta Landa eta Regidor andreak.

En Eskoriatza, a 24 de marzo de dos mil quince, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día , en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde-Presidente Beinat Herce Leceta, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asisten los Srs. Merino y Cantero y las Sras. Landa y Regidor.

1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.

Ondorengo egunetan egindako osoko bilkuretako aktak onartu dira: 2015/01/27 eta 2015/02/24

2.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK.

Alkateak, udalbatzar osoaren izenean, bere atsekabea adierazi du ISABEL GURIDIren heriotzarengatik, eta bere dolumin bizienak adierazi nahi die senideei. Alkateak adierazi du Isabel Guridi erreferentzia bat izan dela Eskoriatzan ingurumenaren eta kultur ondarearen alde egindako lanarengatik. Horregatik, jakinarazi du, sanpedroetan urtero egiten den erakusketa bere omenez izango dela aurtan, eta berak egindako lanarekin lotuta egongo dela.

Ondoren, 2015eko martxoaren 16ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman eta horien laburpenen kopia banatu da.

3.- DEIALDIKO GAI ZERRENDAN HAINBAT GAI SARTZEA BERRESTEA.

Aho batez erabaki da gai zerrendan honako gai hauek sartzea:

- HEMEN GARBIKETAK JAULKITAKO FAKTURA (otsailak 16-martxoak 15)
ORDAINTZEKO AGINDUA.

-"AXTROKI" IZENEKO TOKIKO MONETA EZARTZEKO ESKORIATZAKO
Merkatariekin sinatu beharreko lankidetzaren hitzarmenaren eredia
ONARTZEA.

-ZUBIATEKO LABEAN ZERBITZUAK (bisita gidatuak eta tailerrak) EMATEAGATIKO
TASA ONARTZEA.

4.- DEBAGOIENA MANKOMUNITATEKO ESTATUTUAK ONARTZEA.

Debagoieneko Mankomunitateko Gobernu Juntak egindako eta 2015eko urtarrilaren 25eko bilkuran onartutako estatutu proposamena ikusita, eta Pertsonal eta Gobernu batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, legezko gehiengo absolutuaren quoruma osatuta, honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- DEBAGOIENA MANKOMUNITATEKO estatutuak onartzea.

5.- ESKORIATZAKO UDAL KIROL ZERBITZUKO ARAUDIA HASIERA BATEAN ONARTZEA.

Kultura batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Hasiera batean onartzea Eskoriatzako Udal Kirol Zerbitzuko Araudia.

Bigarrena.- Araudi hori jendaurrean jartzea hogeita hamar egunez, nahi duenak erreklamazioak eta iradokizunak egin dezan. Erreklamaziorik edo iradokizunik egonez gero, Udalbatzarrak erabaki beharko ditu. Erreklamaziorik edo iradokizunik ez balego ordenantza hori behin betiko onartutzat joko da erabaki berririk hartu behar gabe, horrela aurreikusten baitu apirilaren 21eko 11/1999 Legeak aldatutako Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 49.c) artikulua.

6.- LANDUK JARRITAKO ABALA ITZULTZEA.

Eskoriatzako berdeguneak, parkeak, lorategiak eta pasealekuetako zuhaitzak zaintzeko eta mantentzeko zerbitzua ematek sortutako betebeharrei erantzuteko berme bezala 2010eko uztailaren 23an jarritako fidantza itzultzeko LANDUK egindako eskaera ikusi da.

Eskaera aztertuta, zerbitzu teknikoek egindako txostena ikusita, eta Hirigintza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Eskoriatzako berdeguneak, parkeak, lorategiak eta pasealekuetako zuhaitzak zaintzeko eta mantentzeko zerbitzua ematek sortutako betebeharrei erantzuteko berme bezala 2010eko uztailaren 23an jarritako 5.032 euroko fidantza LANDUari itzultzeko agintzea.

7.- HEMEN GARBIKETAK JAULKITAKO FAKTURAK (otsailak 16-martxoak 15) ORDAINTZEKO AGINDUA.

HEMEN GARBIKETAK SLU enpresak 2015eko martxoaren 16an egindako 10 faktura aurkeztu ditu (150455 zenbakitik 150466 zenbakira), 2015eko otsailaren 16tik martxoaren 15era hainbat udal eraikin garbitzeko emandako zerbitzuari buruzkoak.

Martxoaren 17an egindako txostenean, idazkari-kontuhartzaileak legezketasun eragozpena jarri dio espediente horri, horretarako kontraturik ez dagoelako.

Udal zerbitzu teknikoek faktura horiek ordaintzearen aldeko txostena egin dute, alegatuz zerbitzua egoki eta merkatuko ohiko prezioetan eman dela.

Kontuan hartuta faktura horiek ordaindu ezean fede onez ari diren hirugarrenak kaltetuko zirela (kasu honetan, HEMEN GARBIKETAK SLU) eta administrazio honek bidegabeko irabaziak izango lituzkeela, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

- 2015eko otsailaren 16tik martxoaren 15era hainbat udal eraikin garbitzeko emandako zerbitzuari buruz 2015eko martxoaren 16an HEMEN GARBIKETAK SLU enpresak egindako fakturak (150455 zenbakitik 150466 zenbakira, biak barne) ordaintzeko agintzea.

8.- LANDUK JAULKITAKO FAKTURAK (otsaila) ORDAINTZEKO AGINDUA.

LANDU JARDINERIA enpresak 2015eko otsailaren 28an egindako faktura aurkeztu du (12-15 zenbakia), Eskoriatzako berdeguneen eta lorategien mantentze zerbitzuari buruzkoa.

Martxoaren 11n egindako txostenean, idazkari-kontuhartzaileak legezkotasun eragozpena jarri dio espediente horri, horretarako kontraturik ez dagoelako.

Hirigintza batzorde informatzaileak faktura hori ordaintzearen aldeko txostena egin du, alegatuz zerbitzua egoki eta merkatuko ohiko prezioetan eman dela.

Kontuan hartuta faktura hori ordaindu ezean fede onez ari diren hirugarrenak kaltetuko zirela (kasu honetan, LANDU JARDINERIA) eta administrazio honek bidegabeko irabaziak izango lituzkeela, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

2015eko otsailean Eskoriatzako berdeguneen eta lorategien mantentze zerbitzua emateagatik LANDU JARDINERIA enpresak 2015eko otsailaren 28n egindako faktura (12-15 zenbakia) ordaintzeko agintzea.

9.- CESPAC JAULKITAKO FAKTURA (otsaila) ORDAINTZEKO AGINDUA.

CESPA enpresak 2015eko otsailaren 28an egindako faktura aurkeztu du (15EK00002 zenbakiduna), 2015eko otsailean Eskoriatzako kaleak garbitzeko emandako zerbitzuari buruzkoa.

Martxoaren 11n egindako txostenean, idazkari-kontuhartzaileak legezkotasun eragozpena jarri dio espediente horri, horretarako kontraturik ez dagoelako.

Hirigintza batzorde informatzaileak faktura hori ordaintzearen aldeko txostena egin du, alegatuz zerbitzua egoki eta merkatuko ohiko prezioetan eman dela.

Kontuan hartuta faktura hori ordaindu ezean fede onez ari diren hirugarrenak kaltetuko zirela (kasu honetan, CESPAC) eta administrazio honek bidegabeko irabaziak izango lituzkeela, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

-Otsailean Eskoriatzako kaleak garbitzeko emandako zerbitzuagatik CESPAn enpresak 2015eko otsailaren 28an egindako faktura (15EK00002) ordaintzeko agintzea.

10.-DORLETAKO 11. ZENBAKIKO ETXEJABEEK EGINDAKO HOBARI ESKAERA.

Hirigintza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Dorleta 11 zenbakiko eraikinean igogailua jartzeko emandako baimenak sortutako EIOZaren % 90eko hobaria egitea, obrek betetzen baitituzte hobaria jasotzeko beharrezko baldintza hauek:

- Instalazioa eraikin barruan dago.
- Obrek indarrean dagoen legeria betetzen dute.
- Dauden aukeren artean, instalazio hau da eraikinaren irisgarritasuna ondoen hobetzen duenetako bat.
- Instalazioa inguruko antzeko eraikinetakoen antzekoa da.
- Lurzoru publikoan eta eraikinaren lerrokaduretan duen eragina izan daitekeen txikiena da.

11.-ONARTUTAKO ESKUBIDEEI BAJA EMATEA.

Preskribatuta egoteagatik, kreditu kobraezin deklaraturik egoteagatik, bidezkoak ez izateagatik, bikoiztuta egoteagatik edo beste arrazoiren batzuegatik aurreko ekitaldietatik kobratu gabe gelditu ziren eskubideen baja onartzeko, denak ere 2013 eta 2014ko zerga aldietakoak, diru bilketa zerbitzuak tramitatutako espedientearen berri eman da.

Ogasun batzorde informatzailearen diktamena **IKUSI DA.**

Diktamena botoetara jarrita, Udalbatzarrak, bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, honako hau **ERABAKI DU:**

LEHENENGOA.- 2013ko eta 2014ko ekitaldiei dagozkien eta kobratzeko dauden eskubideei baja emateko talde espedienteak onartzea ondorengo taulan agertzen diren kontzeptuegatik, subjektu pasiboetara eta diru kopuruengatik:

(*)KONTZEP/EPEA/ZKIA	ZENBATEKOA (€)	ZERGADUNA	ZERGATIA
031/2013.01/713	22,87	RUIZ PLAZUELO MIGUEL	2012an baja eskatuta.
001/2014.01/1762.3	111,88	MATA OYANGUREN JON	2011KO BAJA T.
001/201401/1762.2	52,37	MATA OYANGUREN JON	2011N KOTXEKO BAJA TENPORALA

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailletza eta Diruzaintza udal zerbitzu ekonomikoei beste arrazoiren batzuegatik preskribatutzat edo baliogabetutzat deklaraturako zorrei baja eman diezaieten kontabilitate eta diru-bilketa kontuetan.

12.- 2015-EAN ALDI BATERAKO LANGILEAK KONTRATATZEKO EDO BITARTEKO FUNTZIONARIO IZENDATZEKO IRIZPIDEAK.

2015. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 26ko 36/2014 Legeko 21. artikulua, bigarren atalean, honako hau ezartzen du:

2015ean ez da aldi baterako langilerik kontratatuko, ezta aldi baterako estatutupeko langilerik edo bitarteko funtzionarioik izendatuko ere, salbuespenezko kasuetan eta premiazko behar atzeraezinak estaltzeko izan ezik; azken hauek, gainera, lehentasunezko edo funtsezko zerbitzu publikoen funtzionamenduan eragiten duten sektore, eginkizun eta kategorietara mugatuko dira.

Aldi baterako langileak noiz kontratatu ahal izango diren edo bitarteko funtzionarioak noiz izendatu ahal izango diren zehazteko, eta Pertsonal batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- 2015eko ekitaldian, arau orokor moduan, ez da kontratatuko aldi baterako langilerik eta ez da izendatuko bitarteko funtzionarioik.

Bigarrena.- Salbuespen gisa, eta bakar bakarrik ondorengo egoeratan, kontratatu ahal izango dira aldi baterako langileak edo izendatu ahal izango dira bitarteko funtzionarioak.

1.- Aldi baterako kontratazioa edo bitarteko funtzionario izendatzea **premiazko behar atzeraezinak estaltzeko izatea, eta gainera, baldintza hau bete beharko da:**

2.- Aldi baterako kontratazioa edo bitarteko funtzionario **izendapena lehentasunezko arlo, funtzio eta lanbide-kategorietarako izatea edo oinarrizko zerbitzu publikoen funtzionamenduan eragina izatea.**

Helburu horretarako:

LEHENTASUNEZKOAK IZANGO DIRA ondorengo baldintza guztiak betetzen dituzten lanpostuak: a) 2015eko lanpostu zerrendan egotea, b) aurrekontu zuzkidura izatea, eta c) beharrezkoak izatea gaur egun eskaintzen den zerbitzuaren kalitate maila bermatzeko.

GINARRIZKO ZERBITZUAK ondorengoak izango direla ERABAKI DA: Brigada, udaltzaingoa, gizarte zerbitzuak eta jendearentzako harrera.

Hala ere, aldi baterako kontratazioa edo bitarteko funtzionario izendatzea behar beharrezko denborarako bakarrik egingo da.

Hirugarrena.- Aurreko puntuan araututako aldi baterako kontratazioa edo bitarteko funtzionario izendapena egin aurretik, ezinbestean, langile hori hartu behar duen departamendua aldi baterako langilearen behar horri erantzuten saiatu beharko da Udalak erabilgarri dituen giza baliabideak berrantolatuz.

Laugarrena.- : Ez da ordezkapenik egingo hurrengo kasuetan:

- Oporrak.
- Gaixotasun edo istripu lizentziak, lizentziaren iraupena 15 egun naturalerako edo gutxiagorako denean.
- Aitatasun-lizentziak.
- Familiarteko baten heriotzagatik, istripuarengatik, gaixotasun larriarengatik edo ospitaleratzeagatik lizentzia.
- Ezkontzeagatik edo izatezko bikotea sortzeagatik lizentzia.
- Nahitaezko betebeharrak egiteko lizentzia.
- Prestakuntza ikastaroetara edo euskara ikastaroetara joateko lizentzia.

- Ohiko etxebizitza aldatzeagatik lizentzia.
- Funtzio publikoarekin edo betetzen duen lanpostuarekin zerikusirik ez duten azken azterketak egitera Zentro Ofizialetara joan ahal izateko lizentzia.
- Mediku kontsultetara, tratamenduetara eta azterketetara joateko lizentzia.
- Norberaren arazoetarako lizentzia.
- Barne sustapenerako ikasketak edo probak egiteko baimena.
- Norberaren arazoetarako ordaindu gabeko baimenak, baimenaren iraupena 15 egunekoa edo gutxiagokoa denean.
- Izaera zientifikoa, teknikoa, profesionala, kolegiatua, elkartekoa edo sindikala duten ekitaldi kolektiboetara joan ahal izateko baimena.
- Lanaldi murriztua, murrizpena % 25ekoa edo txikiagoa denean.

Bosgarrena.- Edozein modutan, eta inolako salbuespenik gabe, aldi baterako kontratazioa egiteko edo bitarteko funtzionario izendatzeko ondorengo baldintzak bete beharko dira:

- Arloko edo departamenduko arduradunaren JUSTIFIKAZIO XEHATUA honako hauei buruz:

Sortutako beharrari aurre ezin egin izana Udalean eskuragarri dauden baliabideekin eta giza baliabideak berrantolatzeko dauden formulak erabilia (funtzioak berresleituz, ordutegia aldatuz, zerbitzu-eginkizunak erabiliz, zeregin-pilaketa eta abar).

Beharra premiazkoa eta atzeraezina izatea, kontratazio egin behar duen arloak edo lanpostuaren funtzioak lehentasunezko izaera izatea eta oinarrizkotzat jotako udal zerbitzu batean eragina izatea.

- Beharrezkoa izanez gero, ARDURADUN POLITIKOAREN ONIRITZIA.
- KONTUHARTZAILTZAREN TXOSTENA, kontratazio hori egiteko behar besteko aurrekontu zuzkidura dagoela esaten duena.

13.- “AXTROKI” IZENeko TOKIKO MONETA EZARTZEKO ESKORIATZAKO MERKATARIEKIN SINATU BEHARREKO LANKIDETZA HITZARMENAREN EREDUA ONARTZEA.

Garapen Jasangarria batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- AXTROKI tokiko moneta erabiltzen jarraitzeko Axtroki merkatariekin elkarteko kide ez diren merkatariekin sinatu beharreko lankidetzaren hitzarmen ereduaren onartzea. Hitzarmenaren baldintzak erabaki honen eranskin gisa doaz.

Bigarrena.- Ahalmena ematea Alkateari Udalaren ordezkartzan eta izenean hitzarmen hori sinatzeko Udalak jaulkitako AXTROKI toki moneta erabiltzeko interesa erakusten duten merkatariekin.

ERANSKINA

BALDINTZAK

Lehena. Hitzarmen honek AXTROKI izeneko tokiko moneta ezartzeko Eskoriatzako Udalaren etan arteko lankidetzaren bideak jartzen ditu.

Bigarrena. komertzioaren titularraren funtzioa honako hau izango da.

Udalak tokiko monetan emango dituen laguntzak beraien produktuengatik eta zerbitzuengatik trukatzeko baldintzei eta moduari buruz egingo den informazio kanpaina laguntzea.

Udalak jaulkitako AXTROKI moneta lokalarekin produktuak zein zerbitzuak erostea onartzea. Beraien prestazioa ordainduzat emango dute horien prezioaren baliokidea AXTROKIETAN ordainduta.

Hirugarrena. Eskoriatzako Udalak hartzen dituen konpromisoak.

Udalak honako konpromiso hauek hartzen ditu:

- AXTROKI moneta lokalaren erabilera sustatzea.

- AXTROKI izeneko tokiko moneta zuzenean jaulkitzea eta bere erabilera herrian sustatzea axtrokietan ordainduz 2015ean emango dituen sarietako batzuen onuradunei eta tokiko garapena sustatzeko diru laguntzak arautzeko oinarrietan jasotako diru laguntzen onuradunei (Udalbatzarrak onartutakoak 2013ko abenduaren 17an, eta GAOko 3. zenbakian argitaratuta 2014ko urtarrilaren 7an).

- AXTROKI tokiko monetak euroengatik aldatzea erakunde laguntzaileari atxikitako herriko merkatariek Udalak berak jaulkitako axtrokiak Udalera eramandakoan. Baliokidetzaren euro 1

AXTROKI 1 izango da.

Laugarrena. Udalak jaulkitako AXTROKIAK aldatzeko prozedura.

Aldaketa edo trukea horrela egingo da:

- Merkatariak ondasunak edo zerbitzuak trukatzeari jasotako AXTROKIAK (Udalak jaulkitakoak) udal diruzaintzan entregatu beharko dituzte. Axtrokiak hileko lehen 5 lanegunetan entregatu beharko dira, 10:00etatik 14:30etara (larunbatetan izan ezik).

Udalak, behin moneta faltsua ez dela egiaztatu eta monetaren zenbakia urte horretan deitutako prozesuetan emandakoa dela ikusi ondoren, beraien ekarritakoaren baliokidea eurotan emango dio merkatarik bakoitzari hileko hirugarren astearte baliodunean.

Aldaketa egiteko azken hilabete balioduna hurrengo urteko urtarrila izango da. Hilabete horretan hilaren 7,8 eta 11an egin ahal izango da aldaketa. Egun horiek Axtrokiak aldatzera Udalera etorri gabe igaroz gero, horien baliokideak eurotan jasotzeko eskubide guztia galduko du merkatarik.

Bosgarrena.- Jarraipen bilera.

Alde bietan beharrezko ikusten dute hitzarmen honi jarraipena egitea. Horretarako, eta beharrezkoa izanez gero, bilera egingo da alde bietako ordezkarien artean. Bere eginkizun nagusia hitzartutako aurreikuspenak eta konpromisoak betetzen direla ikustea izango da, eta orokorrean, etorkizunean sortu daitezkeen gora behera guztiei erantzutea.

Batetik, Eskoriatzako Udalaren ordezkariak izango dira bileran:

- a) Ekonomia eta enplegu arloko zinegotzi arduraduna.
- b) Ekonomia eta enplegu arloko atxikitako museoko teknikaria.

Bestetik, komertzioaren titularrak izango dira bileran.

Hitzarmen honen interpretazio eta exekuzioari buruz egon daitezkeen eztabaidak alde bietan, Jarraipen bileraren bidez, ados jarrita konpondu beharko dira.

Ezingo balitz adostasun horretara iritsi, egon daitezkeen eztabaidak Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak ezarritako moduan konpondu beharko dira.

Zazpigarrena. Hitzarmen hau bakar bakarrik lehenengo baldintzak zehaztutako helburua betetzera mugatzen da, eta sinatzen den egunetik 2015eko abenduaren 31ra arte izango du indarra.

Zortzigarrena. Hitzarmen honek administrazio izaera du, eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzio-ordenean inpugnatu ahal izango da.

Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuz onartutako Sektore Publikoaren

Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategineko 4.1.d) artikuluan ezarritakoaren arabera, hitzarmen hau bere aplikazio eremutik kanpo gelditzen da, hala ere, hitzarmena betetzerakoan sor daitezkeen zalantzak edo arazoak interpretatu, aldatu edo konpontzeko arau subsidiarioa izango da.

14.- ZUBIATEKO LABEAN ZERBITZUAK (bisita gidatuak eta tailerrak) EMATEAGATIKO TASA ONARTZEA.

Garapen batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Zubiatego labeen zerbitzuak (bisita gidatuak eta tailerrak) emateagatikoko tasa hasiera batean onartzea.

Bigarrena.- Jendaurrean jartzea hogeita hamar egunez, nahi duenak erreklamazioak eta iradokizunak jar diezaion. Erreklamaziorik edo iradokizunik egonez gero, Udalbatzarrak erabaki beharko ditu. Ez balego horrelakorik, behin betiko onartutzat joko da erabaki berririk hartu beharrik gabe.

15.- JARRITAKO ABALA ITZULTZEKO SUKIA S.L. ENPRESAK EGINDAKO ESKAERA (ESKORIATZAKO BIDEGORRIKO PASABIDEA EGITEKO OBRAK).

Udalbatzarrak, 2007ko maiatzaren 24an hartutako erabakiz, Eskoriatzako San Juan kaleko azken zatiko urbanizazio proiektuan aurreikusitako obrak egiteko kontratua esleitu zion Construcciones Sukia Eraikuntzak enpresari 245.562,72 eurotan.

Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Jasangarrirako Departamentuak Aingeru Guardako biribilgunetik Hidalgo Kaleko Zorautz etxera arte oinezkoentzako eta txirrindularientzako 948 m-ko bide zati bat egiteko obrak hasi zituen.

Kontuan izanik txirrindularientzako bide zati bat San Juan Kaleko zubipeko pasabide berri batetik pasa behar zela, eta herri-interesekoa zela obra bien eragina gutxitzea eta kostu ekonomikoa murriztea obrak berriz egitea ekidinez, Udalbatzarrak, 2007ko abenduaren 26an egindako bilkuran, Construcciones Sukia Eraikuntzak S.A. enpresari esleitutako Eskoriatzako San Juan kaleko azken zatiko urbanizazio proiektuan aurreikusitako obrak egiteko exekuzio kontratua aldatzea onartu zuen, eta *ESKORIATZAKO BIDEGORRIKO PASABIDEA EGITEKO OBRAK* proiektu horretan sartzea.

Hori dela-eta, kontratuaren prezioa 154.458,92 €-tan igo zen, eta horrela, prezio berria 400.021,64 €-tan gelditu zen, BEZ barne.

Aldaketa horretan sartuta gelditu ziren Eskoriatzako bidegorriko pasabidea egiteko obrak, eta kontratuaren prezio berria 400.021,64 €-etan ezarrita gelditu zen.

Arrazoi horregatik, SUKIA Eraikuntzak S.A. enpresak 6.178,36 €-ko abala jarri zuen 2008ko martxoaren 6an.

Orain, SUKIA, S.A.-k 2008ko martxoan jarritako 6.178,36 €-ko abala itzultzeko eskatzen du.

Hirigintza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- BANCO BILBAO VIZCAYA ARGENTARIA S.A.-k emandako eta SUKIA ERAIKUNTZAK S.A. enpresak jarritako 6.178,36 €-ko abalaren kitapena baimentzea. Abal hori Eskoriatzako San Juan kaleko azken zatiko urbanizazio proiektuan aurreikusitako obren (I. kapitulua) exekuzio zuzenaren berme bezala jarri zen.

Bigarrena.- Aipatutako abalaren originala interesdunari ematea abalaren kitapena izapidetu dezan.

16.- “SAN PEDRO AUZOA (10 zenbaitik 16-17 zenbakietara arte) BERRURBANIZATZEKO PROIEKTUAN“ AURREIKUSITAKO OBRAK KONTRATATZEKO ESPEDIENTEA HASTEAN: baldintza administratiboen agiria onartzea eta lehiaketa.

Hirigintza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- SAN PEDRO AUZOAREN (10 zenbaitik 16-17 zenbakietara arte) BERRURBANIZAZIO PROIEKTUAN aurreikusitako obrak kontratatzeke eta enplegua eta horren kalitatea sustatzeko espedienteari hasiera ematea.

Bigarrena.- Kontratua tramitazio arruntez eta prozedura irekiz esleitzea. Deialdiko kontratazio aurrekontua 247.813,43 euro gehi BEZaren %21eko 52.040,82 eurokoa izatea, eta gastu hori ondorengo partiden kontura baimentzea:

0102.601.153.20.15.2014 ; 0102.601.160.00.15.2014,

0102.601.161.00.15.2014 eta 0102.601.165.00.15.2014.

Hirugarrena.- Baldintza administratiboen agiria onartzea.

Laugarrena.- Deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta kontratatzailearen profilean iragartzea.

17.- PROMOCIONES ESKORIATZA S.A. ENPRESAK EGINDAKO ESKAERA INTXAURTXUETAKO 32, 33 ETA 34. ZENBAKIETAKO 4 LOKALETAN EGOKITUKO DIREN ETXEBIZITZAK ESLEITZEKO PROZEDURARI BURUZ.

Hirigintza batzorde informatzailearen diktamenik ez dagoenez, aztertzeke gelditzen da.

18.- HILERRIKO UDAL JABETZAKO PARTZELA BAT AZKARATE-OSINAGA NEBA-ARREBEN JABETZAKOARENGATIK TRUKATZEA.

Eskoriatzako Udalak udal hilerriko B, C, F eta G guneeetatik hilerriak kendu nahi ditu gunehoriek berdegune edo lorategi bezala egokitzeko.

Horretarako, gunehorietako hilobiak kendu eta hilerriko beste leku batzuetara aldatu behar dira.

Aldatu behar diren hilobi batzuetako jabeak hilobi horien jabetza dute betirako, lurzati hori erosi ziotelako Elizari horrek hilerria Udalarari eskualdatu baino lehen.

Egia bada ere gaur egun, Toki Entitateen Ondasunen Erregelamenduari buruzko ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua indarrean sartu ondoren jabari publikoko ondasunen erabilera pribatiboa administrazio emakidaren menpe dagoela (Herri Administrazioen Ondareari buruzko 33/2003 Legeko 93.3 artikulua arabera, emakidak ezin du 75 urte gaintitu) eta ezin dela egon hilobiaren jabetza pribaturik, bateraezina delako udal hilerriaren jabari publikoaren izaerarekin, egia da ere 1372/1986 Errege Dekretua indarrean sartu aurretik eskuratutako eskubideak ere badirela, eta erregimen hori atzeraeraginez aplikatuz gero Espainiako Konstituzioko 9. artikuluan aurreikusitako atzeraeraginez ezaren printzipioaren aurkakoa izango litzatekeela.

Aurrez esandakoa kontuan izanik, Herri Administrazioen Ondareen araudiaren eta 1372/1986 Errege Dekretua indarrean sartu aurretik jabetzan egindako salmenten arteko konponbidea adostu nahian, eta Hirigintza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- B-9 eta B-18 partzeletan kokatutako Osinaga Azkarate neba-arreben jabetzako hilobia A-16 eta A-17 partzeletan kokatutako hilobiagatik trukatzeko ondorengo baldintzetan:

- Epea: Ehorzketak egiteko erabilera eskubidea San Pedro udal hilerria erabiltzen den denbora guztirako izango da. Hau da, erabilera eskubidea iraunkorra da Udalak udal hilerria egungo kokapenean mantentzen duen arte.

- Trukaketarako baldintza da titularrek uko egitea B-9 eta B-18 lurzatietan izan ditzaketen eskubide guztiei.

- Eskualdaketa: Hilobia ehorzketarako erabiltzeko (gorpuak edo gorpuzkiak izan edo ez) eskubide iraunkorraren titularitatea ezingo da inolaz ere *inter vivos* eskualdatu, bakarrik herentziaz eskualdatu ahal izango da.

- ARAUDI APLIKAGARRIA. Ehorzketak egiteko erabiltzeko eskubidea Eskoriatzako San Pedro Hilerriko barne erregimeneko erregelamenduan jasotako baldintzen arabera gauzatu beharko da, eta eskubide horren titularrak araudi horretatik eratorritako eskubide eta betebeharrak beregain hartu beharko ditu.

19.- ADIERAZPENA, MARTXOAREN 21a ARRAZAKERIAREN ETA XENOFIARIEN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA DELA-ETA.

Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurkako Nazioarteko Eguna martxoaren 21ean ospatzen dela-eta, Udal honek honako hau adierazi nahi du:

1. Herrian bizi diren pertsona guztiak dira herritarrak, edonon jaiok direla ere.
2. Herritar guztiok izan behar ditugu eskubide eta betebeharrak berberak. Eta horretarako lanketa bat egingo da.
 1. Pertsona guztien eskubideak bermatzeko.
 2. Aukera berdintasuna bermatzeko.
 3. Ezberdin izateko eskubidea bermatzeko.
3. Jarrera xenofobo eta arrazistak identifikatu eta salatuko dira.
4. Jendarte kohesionatu eta justu bat eraiki behar da, lehiari baino elkartzasunean oinarritutakoa, eta aniztasuna beldurrez eta gatazka iturri bezala hartu beharrean, aberastasun iturri bezala hartuko duena.
5. Bide horretan elkarbizitza da gakoa. Horretarako, beharrezkoa da elkar-ezagutza eta elkar-aitortza aitortzea.
6. Herrian dagoen kultura eta hizkuntza aniztasuna aberasgarria da herriarentzat, eta, horiek babestu eta indartzeko lanketa egingo da, betiere, euskara kohesio eta komunikazio hizkuntza bezala aitortuz.

20.- GALDERAK ETA ESKARIAK.

Ez da egon.

Eta beste gairik ez dagoenez, 18:55ean amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.

1.-APROBACIÓN DE ACTAS DE SESIONES ANTERIORES.

Por encontrarlas conformes son aprobadas las actas de las sesiones de fecha 27 -01-2015 y 24-02-2015.

2.-COMUNICACIONES DE LA ALCALDÍA

El alcalde, en representación de toda la corporación, muestra sus condolencias por la muerte de ISABEL GURIDI y expresa su más sentido pésame a los familiares. Isabel Guridi, señala el alcalde, ha sido un referente en el municipio de Eskoriatza por toda su labor en defensa del medio ambiente y del patrimonio cultural. Por ello, informa, en la fiestas de San Pedro de este año, la exposición que anualmente se acostumbra a organizar será en su honor y en relación a todo el trabajo que realizó.

A continuación informa de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía hasta el día 16 de marzo de 2015 haciéndose entrega de una copia del extracto de las mismas.

3.-RATIFICACIÓN DE LA INCLUSIÓN DE ASUNTOS DENTRO DEL ORDEN DEL DÍA DE LA CONVOCATORIA.

Por unanimidad se acuerda ratificar la inclusión de los siguientes asuntos dentro del orden del día:

- ORDEN DE PAGO DE LA FACTURA EMITIDA POR HEMEN GARBIKETAK (16 febrero-15 marzo)

.-APROBACION DEL MODELO DE CONVENIO DE COLABORACION A FORMALIZAR CON COMERCIANTES DE ESKORIATZA PARA LA IMPLANTACION DE LA MONEDA LOCAL "AXTROKI"

-APROBACION DE LA TASA POR PRESETACION DE SERVICIOS EN EL "HORNO ZUBIATE" (visitas guiadas y talleres)

4.-APROBACION DE LOS ESTATUTOS DE LA MANCOMUNIDAD DEBAGOIEBA

Vista la propuesta de Estatutos elaborada y aprobada por la Junta de Gobierno de "Debagoieneko Mankomunitatea" en sesión de fecha 29 de enero de 2015, y de conformidad

con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Personal y Gobernación, el Pleno, con el voto a favor de todos los corporativos presentes, que constituye el quorum de la mayoría absoluta legal, ACUERDA

PRIMERO.- Aprobar los Estatutos de DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

5.-APROBACION INICIAL DEL REGLAMENTO DEL SERVICIO MUNICIPAL DE DEPORTES DE ESKORIATZA

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Cultura y el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

Primero: Aprobar inicialmente el Reglamento del Servicio Municipal de Deportes de Eskoriatza .

